




Karmelo Landak puntua jarrita

Paulo Agirrebaltzategi

— EKB eta Euskal Herriko Ikastolen Federakundearen eraginez, besteak beste, «Bateginik» kanpaina burutuko da martxoaren 15etik maiatzaren 15era. Helburuen artean, euskararen aldeko kontzientzia biztu bai eta ikastolei laguntza ematea iragartzen dira. EKBren partaide zarenez, hau da zuretzako galdera: ez dira hauek, berez, instituzioek bete beharko litzuketean helburuak?



Euskal Herriko erakunde publiko eta ofizialei dagokie nagusienik euskara hizkuntza nazionalaren defentsa egitea; baita horren normalkuntzarako plangintza orokorra egitea ere.

Era berean, horiei dagokie nagusienik herri honek behar duen euskal eskola nazionala bideratzea eta hedatzea.

Horrela izan ohi da beren buruaren jabetasun politikoa, ekonomikoa eta kulturazkoa duten herrietan. Baina Euskal Herria ez da bere buruaren jabe oraindik; areago, hiru administrazio politiko eta juridikoetan zatiturik daukate, euskal botere nazionala eratu gabe dago.

Orduan, erakunde, elkarte eta talde herritarren eginkizuna asko handitzen da, horien ekipena funtsezko eta nahitaezko bihurtzen da eta horien eraketa eta koordinazioa behar beharrezkoak dira.

«Bateginik» kanpainak eskabideak eta eskaintzak egiten dizkie erakunde ofizialei: eskabideak, gure hizkuntza eta eskola nazionalen alde beren eginbideak bete ditzaten. Eskaintza, beraiek ere kanpainan partaide izan daitezen, euskararen berreskurapenerako, euskal kulturaren berpizkunderako eta Euskal Herriaren berreraikuntzarako bideak.

Herri honetan bizi dugun kontradikzioaren eta esperantzaren seinaleetako bat da «Bateginik» kanpaina.

Paperetan idatziak

‘A’ EREDUA

‘A’ ereduak frogatu du jadanik bere porrota hiritar elebidunak egiteko funtzio horretan. Eredu horren deuseztapenerako bidea egitea eta ‘B’ eta ‘D’ ereduak bultzatzea da egokiena. ‘A’ ereduaren barne, euskara ikasgai gisa erabiliko duten haurrak biharko eguneko marginatuak izango dira.

Xabier Gereño, (*«El Correo Español»*, 88-3-1).



ARTEA

Maila profesionalen gehien betetzen nauena artea da. Niri benetan gustatzen zaidana jendearekin lan egitea da, eta dibujoa eta pintura egin izan dugu hemengo herri borrokan, Ollarganeko txaboletan bizi ginela geure prolemei buruzko muralak egiteko.

Satur Abon, (*«Egin»*, 88-3-7).

BERTSOLARI GIROA

Bertsolaritzaren giro aldaketa nabaritu izan dut plazan baino gehiago leku itxietan: bazkal eta apal ondorenean. Orain jendeak presa gehiago du eta ez da patxada hartzen bertsoarako lehen moduan. Nik ezagutu izan ditut Basarri, Uztapide eta Lasarteren garaiak. Orduan ehundaka bertsoa saioak entzuten ziren bazkal edo afal ondorengo solasean.

Mikel Mendizabal, (*«El Diario Vasco»*, 88-3-2).

ANTZERKIA

Ezin daiteke esan ez dugula euskal antzerki teknikaririk, baina egia esan, hauek autodidakta batzu besteirik ez dira eta honek badu alde txarrik. Dakitena bere kabuz ikasi dute eta ene ustez, behar beharrezkoa zen moeta honetako ikastaro bat, sarritan “gaizki ikasitakoa” nagusitzen da eta (...) Antzerki taldeek beren produktua saltzeko metodo guztiak erabili behar dute, hau da, programadoreen bila joan behar dute, beraien zain egon beharrean.

Migel Sagües, (*«Hemen»*, 88-3-4).

EUSKAL-DUNTASUNA

Neure etxean, han eta hemen neure eritzi zirtzilak ematen hasi naizenetik, antibaskotzat eta nik ez dakit zertzat gehiago jo nauten. Gauza bat: nik ez dakit zer den *basko* edo *antibasko* izatea. Ni euskalduna naiz eta punto.

Patxi Perurena, (*«Korrok»*, 10. zenbakia, 88ko otsaila).



Puntako argitalpenak

Gasteizko «Herrikoia» liburudendak emandako datuak

Literatur liburuak:

- 1.— «Odolaren usaina», Mikel Antza. Susa.
- 2.— «Ateak bere erroetan bezala», Eduardo Gil Vera. Pamiela.
- 3.— «Azukrea belazetan». Inazio Mujika. Erein.
- 4.— «Urkidian zehar», Andolin Eguzkitza. Pamiela.
- 5.— «110. street-eko geltokia. Inaki Zabaleta. Susa.

Orotarikoak:

- 1.— «Kama sutra», anonimoa. Elkar.
- 2.— «Madame Eduarda, Begiaren, Hildako», Georges Bataille. Elkar.
- 3.— «Hitz gurutzatuak», Jexux Zabala. Egilearen edizioa.
- 4.— «Urruzuno literatur lehiaketa», elkar lanean. Eusko Jaurlaritza.
- 5.— «Jaunes», Bucquoy eta Tito. Antxeta.